

Ipuin kontaketa saioa izango da bihar Zumarragan

Ostiralean liburuak irakurtzeko, saltzeko eta trukatzeko aukera izango da

Urretxu eta Zumarragako udalek Liburuak Plazara programa antolatu dute Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna eta Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Lehena bihar bertan izango da eta bigarrena, berriz, hilaren 23an.

Aipatutako bi egun horietan Maite Francok ipuinak kontatuko ditu Zumarragako udal liburutegian. Ekitaldiak euskaraz izango dira eta 18.00etan hasiko dira. Ipuin kontaketa saioek ordubeteko iraupena izango dute. Lau eta sei urte bitarteko haurrei zuzendutako ekitaldi hauetan sartzeko, aldezturik gonbidapena hartu behar da liburutegian bertan. Bestalde, ostiral honetan eta hilaren 24an argitalpenak kalera aterako dira. 17.00etatik 20.00etara liburuak eta aldizkariak irakur-tzeko aukera eskainiko da Urretxu eta Zumarragako Areizaga-Kalebarren plazan. Gainera, mahai batzuk jarriko dira eta berauetan bi herriotako bizilagunek euren liburuak saltzeko eta trukatzeko aukera izango dute. >a.z.